

BERRIZTAPEN TERAPEUTIKOEN FITXA

<http://www.euskadi.net/sanidad>

54. Zkia. - 2000

ALMOTRIPTANA

ALMOGRAN
Almirall Prodesfarma

12,5 mg-ko 4 konprimituak
Prezioa: 5.897 pta.
12,5 mg-ko 6 konprimituak
Prezioa: 8.846 pta.



TRATAMENDUAREN KOSTUA

Almotriptana 12,5 MG = 1.475 Pta.
Sumatriptana 50MG = 1.119 Pta.
Naratriptana 2,5MG = 942 Pta.
Zolmitriptana 2,5MG = 1.112 Pta.

INDIKAZIOAK

Auradun edo aurarik gabeko migraina-krisien, tratamendu gogorrerako.

KOMENTARIOAK

Almotriptana migrainaren kontrakoa da, serotoninaren errezeptoreen (5-HT1B eta 5-HT1D) agonista selektiboen taldeko farmako berria. Auradun edo aurarik gabeko migraina-krisien, tratamendu gogorrerako onartu da.

Almotriptanaren larruazalpeko edo ahozko administrazioa, migraina akutuaren buruko minaren kontra efikaza da. 668 pazienteekin eginiko entsegu kliniko batean, almotriptana sumatriptan eta plazeboekin konparatu da. 12,5 eta 25 mg-ko almotriptanaren dosiak, 100mg-ko sumatriptana bezain efikazak dira migraina akutuaren tratamendurako, almotriptana eta sumatriptana plazeboa baino efikazagoak izanik.

Oraindik zehazteko dago dosi egokiena. Hasierako dosia 12,5 mg/egunekoa da, eta behar izanez gero beste 12,5mg-ko dosia har daiteke, gutxienez bi orduko tarteaz utzirik.

Almotriptanak plazeboak eragiten dituen efektu kaltegarri berdinak azaltzen ditu; hara gehienetan azaltzen direnak: zefaleak, nekea, goragaleak, aho-lehortasuna, okadak, zorabioak, parestesiak, logurea eta ezurretako mina.

Ondorio gisa esan daiteke, almotriptana "triptan"en taldeko beste farmako bat dela, eta abantailla aipagarri bakarra sumatriptan baino aho-biodisponibilitate handiagoa edukitzea dela (beste 2. generazioko "triptan"en antzera). Orain arte farmakoari buruzko entsegu gutxi egin dira, horrenbestez, beste "triptan" taldeko farmakoekin konparaziozko entsegu gehiago beharrezkoak dira, bere abantailla kliniko aipagarriak ikusteko.

Almotriptana paziente gehiagok erabiltzen ez duten bitartean, ezin izango dugu jakin sumatriptanak eta taldeko beste farmakoek baino efektu kaltegarrien perfila hobea duen ala ez.



OSO INTERESGARRIA INTERESGARRIA ERABILGARRIA NOIZEAN BEHIN EZ DAKAR EZER BERRIRIK ESPERIENTZIA KLINIKO GUTXIEGIA

FICHA DE INNOVACIONES TERAPEUTICAS

<http://www.euskadi.net/sanidad>

N.º 54 - 2000

ALMOTRIPTAN

ALMOGRAN
Almirall Prodesfarma

4 comprimidos de 12,5 mg.
Precio: 5.897 ptas.
6 comprimidos de 12,5 mg.
Precio: 8.846 ptas.



COSTE TRATAMIENTO

Almotriptán 12,5 MG= 1.475 Ptas.
Sumatriptán 50MG = 1.119 Ptas.
Naratriptán 2,5MG = 942 Ptas.
Zolmitriptán 2,5MG = 1.112 Ptas.

INDICACIONES

Tratamiento agudo de los ataques de migraña con o sin aura.

COMENTARIOS

El almotriptán es un nuevo fármaco antimigrañoso perteneciente al grupo de los agonistas selectivos de los receptores de serotonina (5-HT1B y 5-HT1D). Ha sido aprobado para el tratamiento agudo de los ataques de migraña con o sin aura.

La administración oral y subcutánea de almotriptán es efectiva en el tratamiento del dolor de cabeza migrañoso agudo. En un ensayo clínico realizado en 668 pacientes se comparó el almotriptán frente a placebo y sumatriptán. En el mismo, el almotriptán a las dosis de 12,5 mg y de 25 mg ha mostrado una eficacia similar al sumatriptán 100 mg, en el tratamiento de los ataques de migraña agudos, siendo ambos tratamientos superiores al tratamiento con placebo.

La dosis óptima no está claramente establecida. La dosis inicial es de 12,5mg/día, si fuera necesario se administraría otra dosis de 12,5mg con un intervalo mínimo de dos horas entre ambas.

En cuanto a los efectos adversos señalar que fueron similares a los provocados por el placebo, los que aparecieron con mayor frecuencia fueron: cefaleas, fatiga, náuseas, sequedad de boca, vómitos, mareos, parestesias, somnolencia y dolor óseo.

Como conclusión podemos señalar que el almotriptán es otro fármaco más del grupo de los "triptanes", con la única ventaja reseñable frente al sumatriptán de mejorar su biodisponibilidad oral (cosa que ya ocurría con los "triptanes" de segunda generación). Hay pocos estudios del fármaco, por lo que son necesarios estudios comparativos frente a los otros fármacos del grupo para poder demostrar ventajas clínicamente relevantes.

Hasta que el almotriptán no sea utilizado por un mayor número de pacientes, no podremos saber si realmente presenta o no un mejor perfil de efectos adversos que sumatriptán y el resto de fármacos del grupo.



MUY INTERESANTE INTERESANTE EVENTUALMENTE ÚTIL NO APORTA NADA NUEVO EXPERIENCIA CLÍNICA INSUFICIENTE